

**'EUSKAL HERRIA, DATUEN TALAIATIK' (II).** Euskal Herria da Europan azken hamar urteotan haur gutxien jaio den herria. Hori da Aztiker enpresak Udalbiltzaren enkarguz egin duen estatistika liburuaren ondorio ikusgarrienetako bat.

# Haur gutxien jaiotzen den herria

Euskal Herrian mila biztanleko 8,1 ume jaio ziren 1990-2000 epean, alegia, Europa osoko tasarik txikiena; jaiotze tasa txikia izateaz gain, zahartze indizerik handiena duten herrialdeetako bat da Euskal Herria



EGUNKARIA

**HERRI ZAHARRA, HERRI ZAHARTUA.** Euskal Herria Europako herririk zaharrena dela esan ohi da. Gaur egun, ordea, zaharrena izateaz gain, zahartuenetakoa ere bada; izan ere, soilik Italiak du Euskal Herriak baino zahartze tasa handiagoa.

I. Petxarroman | DONOSTIA

Udalbiltzaren enkarguz Aztiker soziologia enpresak Euskal Herriko datu estatistikoak bilduta egin duen *Euskal Herria, datuen talaiatik* liburuaren arabera, azken 10 urteotan Europako haur gutxien jaio den herrialdea Euskal Herria da. Mila biztanleko 8,1 haur besterik ez zen jaio Euskal Herrian 1990-2000ko epean, Europako beste herrialdeetan baino aise gutxiago.

Munduko egoerarekin konparatuta, are handiagoak dira aldeak. Izan ere, 1990-2000ko epean munduan 23,9 haur jaio ziren 1.000 biztanleko urtero, eta Euskal Herrian 8,3 besterik ez. Hortaz, liburuak ondorio garbia ematen du: «Hiru aldiz haur gehiago jaiotzen dira munduan (proportzioan, betiere), Euskal Herrian baino».

Hiltze tasari dagokionez, tasa handiagoa dago munduan Euskal Herrian baino, baina aldea ez da hain handia: 9,2 lagun hiltzen dira munduan 1.000 biztanleko, eta 8,6 Euskal Herrian.

Azkenaldian jaiotzen igoera txiki bat gertatu da, baina jorek ez dute ziurtatzen Euskal Herriaren berezko hazkunde orekatua, liburuaren arabera.

Herrialdeei dagokionez, Lapurdik du Euskal Herri barruko jaiotze tasarik handiena (10,4), eta Bizkaiak, berriz, txikiena (7,4). Tartean daude Nafarroa Beherea (9,2), Nafarroa Garaia (9), Zuberoa (8,4), Gipuzkoa (8,2) eta Araba (7,8).

Hiltze tasarik handiena, berriz, Nafarroa Beherean eta Zuberoan dago. Liburuak dioenez, Araba eta Nafarroa Garaian izan ezik, jaio baino jende gehiago hil da gainerako herrialdeetan 1990-2000ko epean.

## Herririk zahartuenetakoa

Bestetik, Euskal Herria da gaur egun Europako herrialderik zahartuenetariko bat. Hain zuzen ere, Italiaren atzetik, zahartze indizerik handiena du Euskal Herriak Europan.

Herrialde aberatsetan, oro

## AMAIA ELIZAGARATE | AZTIKERREKO SOZIOLOGOA

### «Harritu nau Euskal Herria zer herri zaharra den jakiteak»

I. P. | DONOSTIA

Liburuaren lehenengo ataletan aritu da lanean Amaia Elizagarate soziologoa. EUSKALDUNON EGUNKARIArekin aritu da hizketan bildutako datuei buruz.

#### ■ Bilatu dituzuen datuetan zerbaitek harritu zaitu, edo espero zenituzten aurkitu dituzuen datuak?

Egia esan, uste baino gehiago harritu nau lan hau egiteak. Badaude gauza bitxi dezente. Bat aipatzekotan, aipatuko nuke zer zaharra den gure Euskal Herria, zahartze tasa Europako handienetakoa du-eta. Bestetik, harritu nau Zuberoak nire herriak —Andoain— adina biztanle dituela jakiteak. Eta

beste datu bitxi bat buruan dudana da Lekuine herriak kilometro koadro bat besterik ez duela eremuan.

#### ■ Nola moldatu zarete datuak lortu eta bateratzeko?

Egia esan, dezenteko arazoak izan ditugu. Euskal Herria zenbait administrazio eremutan banatua dagoenez, estatistika institutuak ezberdinak dira, eta bakoitzak gauzak interpretatzeko eta datuak biltzeko modu ezberdina du. Horrek zailtasunak ekarri dizkigu, batez ere Ipar Euskal Herriko hiru herrialdeetan; ezagutza ofizialik ez dutenez, udalerriz udalerriz atera behar izan ditugu datu guztiak. Hego Euskal Herrian ere antzera, Euskal Autonomia Erkidegoaren eta

Nafarroaren artean: adin tar-teak ez zirela berdinak, kategoriak ez zirela berdinak... Orduan, dena bateratzea ezinezkoa izan zaigu. Hala ere, demografia izan da, agian, bateragarritasun handiena lortu dugun atala.

#### ■ Europako datuekin konparatzeko saio berezia egin duzue, ezta?

Bai, geure burua ezagutzeko inguruko herriak ezagutzeko beharrezkoa delako. Dena dela, hor ere zailtasunak izan ditugu bateragarritasunarekin.

#### ■ Euskal Herria izango da egun munduan haur gutxien jaiotzen den herrialdea, ezta?

Bada, bai, gutxienetakoa. Mundu mailako tasarekin kon-

paratuta, sekulako aldea dago hainbat herrialderekin, eta Europako azkena ere bada, bai.

#### ■ Immigrazioarekin ere zailtasun handia izan duzue Euskal Herriko datuak lortzeko.

Bai, hori izan da zailtasun handienak eman dizkigun gaia. Batez ere, hor ikusi dugu zenbait administrazioren pean egoteak zer ondorio ekartzen dituen. Azkenean, gure kalkul propioak egin behar izan ditugu immigrazioaren datuak lortzeko, dauden estatistikak ez direlako baliagarriak. Esaterako, EAeko estatistiketan Hendaiatik etortzen dena nazioarteko immigrazioa balitz bezala hartzen da, eta Nafarroakoa Espainiakoa bezala. Berdin Nafarroaren kasuan. Egin duguna da, jaiotza eta heriotzekin jotuz, gure datuak ateratzea.